


EUSKAL AEKO INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2014ko urtarila

Euskal AEko industri jarduera %1,6 gutxitu zen 2014ko urtarrilean

Euskal AEko industri produkzioaren indizea, aurreko hilarekin alderatuta %1,0 gutxitu zen

Eustatek landutako datuen arabera, 2014ko urtarrilean %1,6 gutxitu zen Euskal AEko industri produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeneoetan, 2013ko hil beraren aldean. Urtaroen eragina zuzenduta, %1,0 murriztu zen Euskal AEko industri produkzioa, 2013ko abenduarekin alderatuta.



2014ko urtarrilean 2013koaren aldean, Energia %8,3 jaitsi da, Ekipo ondasunak %3,7 eta Kontsumo ondasunak %4,3; azken hauen barruan Kontsumo iraunkorreko ondasunak %17,2 jaitsi dira eta ez-iraunkorrekoak %0,8 gehitu; Bitarteko ondasunak %2,3 gehitu.

2014ko urtarrileko hil arteko aldakuntza, 2013ko abenduaren aldean, bestelakoa izan da industri talde handietan. Bitarteko ondasunak %1,5 gehitu dira, eta Kontsumo-ondasunak %1,3. Azken hauen barruan, Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek %1,5 gehitu dira eta Kontsumo-ondasun iraunkorrek %0,9. Energia %2,0 jaitsi da, Ekipo ondasunak %1,9.

Urte artean, euskal industriako sektore handien artean, hauek gehitu dira batik bat 2014ko urtarrilean: Zura, papera eta arte grafikoak %6,2, Elikagai industriak, edariak eta tabakoa %1,7.

1. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea Sektore nagusiak. Urte arteko aldakuntza-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	0,1
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-6,8
09 - Kautxua eta plastikoak	-2,2
13 - Makineria eta tresneria	-4,8
14 - Garraio-materiala	0,2
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	1,7
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-10,9
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	6,2

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea

Jaitzierarik handienak: Material eta Ekipo elektrikoa urte arteko %10,9, Energia elektrikoa, gasa eta lurruna %6,8, Makineria eta ekipoa, %4,8.

Lurraldeetan, Industri Produkzioaren Indizearen urtarrileko urte arteko bilakaera negatiboa izan da hiruretan. Bizkaian %2,9, Araban %0,9, Gipuzkoan %0,8. Hil artean, 2013ko abenduaren aldean, %+2,6 Bizkaian, %-3,7 Gipuzkoan eta %-2,5 Araban.

2. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea. Aldakuntza-tasak. 2014 urtarrila. Behin-behineko datuak

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Urt2014 / Urt2013	M(Urt2014) / M(Urt2013) *	Urt2014 / Abe2013	Abe2013 / Aza2013
Indize orokorra				
Euskal AE	-1,6	-1,6	-1,0	1,4
Araba/Álava	-0,9	-0,9	-2,5	2,4
Bizkaia	-2,9	-2,9	2,6	-0,9
Gipuzkoa	-0,8	-0,8	-3,7	3,1
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-4,3	-4,3	1,3	-1,7
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-17,2	-17,2	0,9	-5,1
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorra	0,8	0,8	1,5	-0,4
Ekipo-ondasunak	-3,7	-3,7	-1,9	2,5
Bitarteko ondasunak	2,3	2,3	1,5	-0,1
Energia	-8,3	-8,3	-2,0	2,0

(*) 2014ko urtarriletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2013ko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Euskal AEko industria produkzioaren indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko datu-bankua